

Ikastetxearen Urteko Memoria

Angel Ganivet Santa Lucía

**2019
2020**

Aurkibidea

1. Sarrera eta justifikazioa	3
2. Helburu orokorrak eta jardueren ebaluazioa	
2.1. IUPean proposatutako helburuen lorpen maila eta garapena	5
2.2. Ikasleriaren ikaskuntza-prozesuen ebaluazioa	22
3. Irakaskuntza-jardueren programaren ebaluazioa	
3.1. Ohiko irakaskuntza-jardueren programaren ebaluazioa	24
3.1.1. Antolaketa eta funtzionamenduaren aspektuak	24
3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak	38
3.1.3. Prestakuntza eta garapen profesionala	44
3.1.4. Irakasleriaren koordinazioa	49
3.2. Irakaskuntza-jarduera osagarrien programaren ebaluazioa	49
4. Eskolaz kanpoko jardueren planaren ebaluazioa.	51
5. Eskolako zerbitzuen ebaluazioa	52
6. Ekonomi-kudeaketarako planaren ebaluazioa	56
7. Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko planaren ebaluazioa	57
8. IUPren garapenaren jarraipenaren ebaluazioa.	59
9. Ondorioak eta hobekuntza proposamenak.	60
10. Eranskinak	63

1. Sarrera

▣ Ikasturteko planaren garapenean eragina izan duten aspektu edota faktoreak

Ikasturte hasieran hiru helburu planteatu genituen. Lehen helburua, Diagnostiko frogaren ondorioetatik dator. Helburu horrekin, gure ikasleen euskaraz komunikatzeko eta ulertzeko gaitasuna hobetu nahi genuen. Halaber, ahozko hizkuntzaren garapenerako estrategiak finkatu dira aurten. Azken urte hauetan gure eskolako erronka izaten ari da arlo hau.

Gure bigarren helburuak hezkuntza-komunitatean bizikidetzaren egokia garatzearekin zerikusia du. Hezkidetzaren proiektua esparruan, Eskola Komunitateko kide guztien iradokizunak aintzakotzat hartu ditugu eta Gurasoen elkarrekin batera, patioaren inguruko hausnarketa burutu dugu eta aldaketa txikiak egiten hasi gara. Eraldaketa horretan, antolakuntzan ere aldaketak egin dira eta ikasleak protagonistak izan dira.

Horretaz gain, aurten Hezkuntza Sailak proposatutako Magnet-Erakarri proiektu pilotuan parte hartu dugu. Proiektu honek osasun sozialean aldaketak izaten ari diren eskoletan bai ikasleei bai eskola komunitate osoari aukera berriak eskaintzea du helburu. Horretarako bikaintasunezko kanpoko entitate batekin batera lan egin behar genuen. Hainbat saiakera egin dira entitate batekin lan egiteko baina ezinezkoa izan da akordio bat izatea. Hala eta guztiz ere, Udaletxeak lagunduta, hainbat ekintza egin ditugu eta web orrialdeari eta logotipoari itxura aldatu diegu.

2020ko martxoan, osasun egoerak saiakera eta asmo guztiak eten ditu eta buru belarri ikas eta irakas prozesuak berrentolatu behar izan ditugu. Ohiko irakaskuntza guztiz berria den eszenario batera egokitu behar izan dugu. Ingurune birtualean aritzeko metodologia aldatu eta tresna egokiak bilatu ditugu ikasturte honetan hasitako prozesuak jarrai dezan.

Horretarako, programazioak berrikusi behar izan ditugu eta curriculumeko funtsezko alderdiei erreparatu, bai metodologiari, bai arlo eta ikasgaiak garatzeko eduki eta ebaluazio-adierazleei dagokienez; betiere, ikasleek ikasmaita bakoitzean lortu behar dituzten helburuak eta kompetentzien garapena oinarri hartuta.

Irakasleak alarma-egoera hasi zenetik lanean egon dira ikasleekin eta familiarekin, eta kasu askotan ikasleen egoera sozio emozionala ezagutu dute. Ahalegin handia egin da familia guztiekin harreman hurbila izateko, eta hori ez da erraza izan kasu batzuetan. Beraz, irakasleen aldetik erakutsitako konpromisoa handia izan da eta hori balioan jarri nahi dugu.

Baita ere familiek egindako ahalegina aipatu behar da. Osasun larrialdia inposatutako konfinamenduak ikaste-irakaste arautuaren eszenatokia aldatu du. Etxea ikasgela bihurtu da, aurrez- aurreko harremanak birtualak izatera pasa dira, espazioa eta denbora inoiz baino gehiago partekatu behar izan dira senideekin, ohiturak aldatu behar izan dira, frustrazio uneak areagotu egin dira... Kasu gehienetan, familia eta irakasleen arteko komunikazioa eta kolaborazioa estutu da.

Memoria honetan garrantzitsua iruditu zaigu etxean egondako garaiaren hainbat aspektu azaltzea, hala nola, familiekiko harremanak, erabilitako bideak, bidalitako lanak eta azalpena eta abar. Hori guztia eranskinetan jasota dago.

📄 Egiteko prozedura eta lan-metodologia

Helburuak garatzeko hainbat batzorde osatu dira kurtso hasieran lana alde zuzenetik prestatzeko. Ondoren, Batzorde Pedagogikoan proposamenak onartu eta ondoren zikloetan landu dira.

📄 Hezkuntza-komunitatearen ekarpenak

	bai	ez	zer-nola
Klaustroa	x		Bilerak
Batzorde pedagogikoa	x		Bilerak
Zikloetako taldeak	x		Bilerak
Proiektuen arduradunak	x		Bilerak
Zikloetako koordinatzaileak	x		Bilerak
Familien ordezkariak	x		Bilerak
Admin. eta Zerbitzuen langileria			
Zuzendaritza taldea <i>El</i>	x		Bilerak
Entrepresak-erakundeak			
Beste batzuk			

📄 Datorren ikasturtean jarraipena izango duten urteko planaren aspektuak

Datorren ikasturtean oso garrantzitsua iruditzen zaigu bizi izan dugun egoerari buruzko gogoeta egitea. Hezkuntza-komunitate osoaren ardura eta kezka da egoerak nolako eragina izan duen ikaskuntza prozesuan eta arlo pertsonalean.

Konozketa gara nahiz eta telematikoki ahalegin handian egin irakasle- ikasle eta ikasle-ikasleen arteko interakzioen eraginez benetako ikaskuntza ematen dela. Beraz, ikasturte hasieran eman gabeko ezinbestekoak eta emandakoen birpasa egin behar dugu. Eskolak itxi zirenetik ikasleek zaila izan dute euskaraz bizitzeko. Euskal telebistan eman dituzten programak ikustera animatu ditugu ikasleak baina hala ere, badakigu hori ez dela nahikoa hizkuntza barneratzeko eta garatzeko.

Beraz, datorren ikasturtean, testu idatzien ulermena lantzeko irizpideak eta ahozko hizkuntza garatzeko estrategiak birpasatuko ditugu.

Baita ere, egia da denok sufritu dugula egoera baina ez era berean. Emozioen kudeaketan laguntzea eta nola sentitu diren era egokian adierazten laguntzea guztiz beharrezkoa iruditzen zaigu.

Berrito irailean klaustro berriari jakinarazi beharko diogu gure eskolako nortasuna eta dinamika eta zeintzuk diren gure helburuak.

Azkenik, eskola komunitatea osatzen dugun guztion kohesioa eta elkarbizitza positiboa bultzatzen jarraituko dugu. Hezkidetzaren Planaren garapenarekin bigarren urtez jarraitu behar dugu eta horrekin, gurasoekin batera jolastokiaren eraldaketarekin jarraituko dugu.

2.1. Helburuen lorpen maila eta garapena

Helburua

Gure ikasleen ahozko hizkuntzaren erabilera sustatzea.
 Testu idatzien ulermena lantzeko irizpideak adostea.
 Irakurketa proiektua irakasleen artean zabaltzea eta ikasgeletan inplementatzea.

TALDEAK	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila	Zailtasunak eta zergatiak	Hobekuntzarako proposamenak	Hobekuntza proposamenak kontuan hartuz, lehentasunak.
HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> Ziklo guztietan irakurketa-planari buruzko gogoeta egin da, ikasleengan duten eraginari buruzkoa, eta testuak ulertzen laguntzeko irizpideak adostu dira. 	<ul style="list-style-type: none"> Ez digu gelan egindako praktikari buruz hausnartzeko astirik eman. 	<ul style="list-style-type: none"> Datorren ikasturtean lan honekin jarraitu beharko dugu. 	<ul style="list-style-type: none"> Testuak ulertzen laguntzeko irizpideak adostea.
	AHOZKOTASUNA			
HAUR HEZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> Jolasgaietarako jolasak eta abestiak prestatu eta aurrera eraman. Geletan ikasitako asmakizunak, olerkiak eta kantak beste geletan aurkeztu. Abestiak eta jokuak programazioetan sartu. Ipuinak ikastea eta beste geletan kontatzea. Antzerki ezberdinak aurrera eramatea. 		<ul style="list-style-type: none"> Irakurketa eta idazketaren inguruan ziklo moduan hausnartu eta sakondu behar dugu. Ezartzen ditugun irizpideak irakasle guztiok aurrera eraman behar ditugu. Hartutako erabakiak idatzita utzi behar dira. LHko goi zikloko ikasleak etortzea HHra ipuinak kontatzera. 	<ul style="list-style-type: none"> Koordinazioa irakaslearen artean, bai hko irakasleen artean eta baita hko eta lhko irakasleen artekoa. Hhko metodologia aldaketa dela eta ordutegian zein programazioetan tarte bat uztea.

<p>LH-KO 1.ZIKLOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Jolasak ikasi eta saioak antolatu dira horietan jolasteko • Abestiak ikasi eta beste geletan abestu dituzte • Abestiak eta jokoak programazioetan sartu dira • Bigarren mailan, lehenengo hiruhilekoan hizkuntza indartzeko irakasleak ahozotasuna tailerra eman zuen. Bigarren hiruhilekoan ikasle berriak etorri ziren eta irakasleak arreta eman behar zien, beraz, etenaldi bat egon zen. Otsailean berriro martxan jarri zen eskolen itxiera arte. • Lehengo mailan ez da bikoizketarik egin ahozotasuna lantzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Denbora falta izan dugu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasgaien antolaketa berrikusi. Gaika landu beharrea alderdika (ahozko adierazpena, idatzizko ulermena...) 	<p>Liburuak hainbeste garrantzia ez izatea eta beste baliabide batzuk erabiltzea.</p>
<p>LH-KO 3.ZIKLOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Testuak ulertzeko estrategia desberdinak lantzean, ahozotasuna ere landu da, ahoz goran pentsatzera bultzatu ditugu hipotesiak eta iragarpenak egitean, aurrezagutzak aktibatu eta elkarbanatzean, irakurritakoari buruz iritzia ematean. • Bikoizketak egin dira ahozotasuna lantzeko. • Tertulia dialogikoak egin dira. • Ikasleek arlo desberdinetan eta gai desberdinen inguruan, aurkezpenak egin dituzte. • Tutoretza-planak hainbat aukera eman ditu hausnartzeko eta eztabaidatzeko, eta, horrela, ahozko adierazpena sustatu da. • Zuzendaritza- taldeak gela bakoitzeko ordezkariarekin egindako bilerak eta ikasgelako ondorengo hausnarketak motibazioa izan dira ahozko adierazpenak sustatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Egunero denbora eskaintzea aho hizkuntza lantzeko ez da erreal, programazioak eginda dauden bezala, ezinezkoa da, ez dago horretarako denborarik. 	<ul style="list-style-type: none"> • Programazioak birmoldatzea. • Lehentasunak ondo zehaztea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasturteko helburu nagusienak lortzeko, ezinbestekoa da lehentasunak ondo zehaztuta izatea eta horiei denbora eskaintzeko aukera ematen duten programazio malguak izatea.

	TESTU IDATZIEN ULERMENA			
LH-KO 1.ZIKLOA	<ul style="list-style-type: none"> • Geletako liburutegien erabilera bultzatu da ikasleek gelan eta etxean irakurtzeko. • Lehenengo mailan tutoreek gelako liburutegitik hartutako ipuin ezberdinak landu dituzte. Ipuin horiek ikasleek eskuragarri izan dituzte kuxkuxeatzeko, berriz irakurtzeko eta etxera eramateko. • Bigarren mailan, irakurketa librea jarri dute martxan. Gelako liburutegitik liburu bat hartu eta azterketak edo gelako lanak amaitzerakoan aukera izan dute irakurtzeko. Liburu horiek ere etxera eramateko aukera izan dute. 	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrera eramateko denbora falta izan dugu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Eskolako liburutegia martxan jarri. • Liburutegian ipuin kontalari dinamikak egitea. • Eskolako liburutegia ikasleen ordutegien barruan sartzea, dinamikak egitea. Aprobetxatu daukagun baliabidea eta irakaslea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Eskolako liburutegiaren erabilera sustatzea.
LH-KO 2.ZIKLOA	<ul style="list-style-type: none"> • 1. Hiruhilabetean irakur saioak antolatu dira gelan • 2. kurtsoan bikoizketaren bidez irakurketa saioak ere antolatu dira. • 2.ebaluaketan Bikoteka irakurtzen jarduerarako testu egokiak aukeratu dira. 3.eta 4. mailako taldeak egin dira • Irakurketa planari dagokionez: <ul style="list-style-type: none"> • Planteatutako prozesua aurrera eraman da. • Irakurzaletasuna bultzatzeko planteatutako jarduerak egin dira.(Tertulia dialogikoak izan ezik) • Gelako liburutegia osatu da. • Ikasleak liburutegira jaitzi dira. 	<ul style="list-style-type: none"> • Tertulia dialogikoak ezin izan ditugu antolatu, hirugarren ebaluaketan egin behar zirelako. 		

<p>LH-KO 3.ZIKLOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ondorengo bi zutabeak landu dira: <p><u>Ikasteko irakurri:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Testuak interpretatzeko estrategia desberdinak landu dira, hiru momentu ezberdinetan: irakurri baino lehen, irakurri bitartean eta irakurri ondoren. <p><u>Irakurzaletasuna:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Geletan gelako liburutegia sortu da (ikasleek etxetik ekarritako liburuekin) • Liburutegira joateko tutore bakoitzak saio bat aukeratu du eta astean behin joan dira • <i>Bikoteka irakurtzen</i> teknika aurrera eraman da • Tertulia dialogikoak eta solasaldiak egin dira: <ul style="list-style-type: none"> ○ Aukeratutako liburuak egokiak izan dira. ○ Oso eztabaida/ hausnarketa sakonak suertatu dira. <p><small>helburu orokorrak</small></p>	<ul style="list-style-type: none"> • Estrategia guztiak ondo lantzeko denbora behar da, eta askotan, denbora falta zaigu. Programazioak eginda dauden bezala, ezinezkoa da. • Ezinezkoa da irakurketa libreari denbora ematea dauzkagun programazioekin. 	<ul style="list-style-type: none"> • Programazioak birmoldatzea. • Lehentasunak ondo zehaztea. • Ikasleei irakurketa librerako denbora eskaintzea: egunero 10 minutu, bueltan ezer eskatu gabe, plazerra helburu. • Astean behin, irakasleek ikasleei irakurtzea: hasierako 15 minututan liburu (luze) bat. • Hamabostean behin liburutegian maila ezberdinetako ikasleak elkartzea (adibidez, LH1+LH4), zaharrenek irakasle papera egin, ikasle txikiekin bikoteka elkartu eta ipuina kontatzea (liburutegiko arduradunak aldeztu aurretik ipuinak erabakita izatea komenigarria da). 	<ul style="list-style-type: none"> • Edozein testu lantzen denean (irakurri baino lehen, bitartean eta ondoren) testua interpretatzeko estrategiak lantzeko egoera ugari suertatzen dira, eta ikasleek estrategia horiek barneratzeko, denbora izatea ezinbestekoa da. • Irakurtzen disfrutatzen denbora gehiago eskaintzea
---------------------------	---	--	---	---

			<ul style="list-style-type: none"> • 3.zikloko ikasleak HHra hamabostean behin joatea ipuina kontatzera (edo talde osoa edo hirunaka). • Liburutegiko arduradunak ikasleei ipuinak kontatzea. • Eskola-komunitateko hainbat kidek (familiakoek, liburutegiko arduradunak...) ikasleei ipuinak kontatzea. • Auzoko liburutegiak ezagutzera joatea. 	
--	--	--	---	--

Helburua

2.- Espazioaren erabilera bidezkoa sustatzea: denon artean jolastokia eraldatzea, hezkidetza-ikuspegia bermatuta.

TALDEAK	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila	Zailtasunak eta zergatiak	Hobekuntzarako proposamenak	Hobekuntza proposamenak kontuan hartuz, lehentasunak.
	<ul style="list-style-type: none"> • Bizikidetza Batzordea LHko ziklo desberdinetako kideekin osatu da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Haur Hezkuntzako irakaslerik ez da egon, metodologiaren 	<ul style="list-style-type: none"> • Haur Hezkuntzako irakasle bat gutxienez batzordean egotea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikazioa, zainketa, ez-biolentzia, edota enpatia bezalako balioekin bat datozen

		hobekuntzan murgilduta egon dira batez ere.		jokabide eta jarrerak indartzea.
	<ul style="list-style-type: none"> Ikastetxeko antolamendua (denok erabiltzen ditugun espazioak) hezkidetza ikuspegitik aztertu da. 		<ul style="list-style-type: none"> Ikastetxearen antolamendua, HH eta LH, biak kontuan hartzen dituen begirada batetik aztertea. 	<ul style="list-style-type: none"> Ikastetxearen antolamendua, HH eta LH, biak kontuan hartzen dituen begirada batetik aztertea. Hezkidetza, zeharka egunerokotasunean eta naturaltasunez lantzea.
	<ul style="list-style-type: none"> Hezkidetza lantzeko materialen bankua sortu da. 		<ul style="list-style-type: none"> Hezkidetza lantzeko materialen bankua eskola komunitatearen esku jartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Emakumeari ikusgarritasuna eta presentzia ematen jarraitzea, kultur aniztasuna bermatuz.
	<ul style="list-style-type: none"> Ikastetxeko jardueretan (gelan, patioan, egun seinalatueta) emakume eta nesken presentzia eta parte hartzea igo da. 		<ul style="list-style-type: none"> Gizon-emakume eredu berria zehaztea eta lantzen jarraitzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Guraso Elkarteko Patioko Batzordearekin gure patioaren eraldaketan elkarlanean jarraitzea hezkidetza ikuspuntu batetik.
	<ul style="list-style-type: none"> Ikastetxeko hormetan emakumeari ikusgarritasuna eta presentzia eman zaio, kultur aniztasuna bermatuz. Mutil eta gizonen eredu berrien irudiak ikusgai egon dira, berdintasunezko maskulinitate berriak sustatuz. 		<ul style="list-style-type: none"> Emakumeari ikusgarritasuna eta presentzia ematen jarraitzea, kultur aniztasuna bermatuz. Mutil eta gizon eredu berrien ikusgarritasuna gehiago sustatzea, berdintasunezko 	

			maskulinitate berriak sustatuz eta kultur aniztasuna bermatuz..
	<ul style="list-style-type: none"> Ikastetxeko partaideek tratu onaren inguruan hausnartzeko eta adierazteko aukera izan dute. 	<ul style="list-style-type: none"> Aurreikusitako ikastetxeko “tratu onen gida” ez da egin denbora faltagatik. Egoera batzuetan, komunikazioa, zainketa, ez-biolentzia, edota enpatia bezalako balioekin bat datozen jokabide eta jarreraren hutsunea egon da. 	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleek kontzientzia izatea gelako, eskolako eta gizarteko arauak estu lotuta doazela. Ikastetxeko “tratu onen gida” egitea. Komunikazioa, zainketa, ez-biolentzia, edota enpatia bezalako balioekin bat datozen jokabide eta jarrerak zehaztea, sakontzea eta lantzea.
	<ul style="list-style-type: none"> LHko patioan, adostutako aldaketa batzuk egin dira (futbol zelai bat kendu, baratza kokatu, frontoia itxi), Guraso Elkarteko Patioaren Batzordearekin lankidetzan. 	<ul style="list-style-type: none"> LHko patioan, adostutako aldaketa batzuk ez dira egin, udaletxekoak ez dira etorri adostu zutena margotzera. 	<ul style="list-style-type: none"> Udaletxekoekin kontaktuan jarraitzea eta eskaera berritzea. Guraso Elkarteko Patioko Batzordearekin gure patioaren eraldaketan elkarlanean jarraitzea hezkidetzaren ikuspuntu batetik.

	<ul style="list-style-type: none"> LHko patio orduetan, futbola eta saskibaloia astean behin izan dute. 	<ul style="list-style-type: none"> LHn, liskarrak egon dira, batez ere, futbolarekin. 	<ul style="list-style-type: none"> Lehiakortasuna, galtzen/irabazten jakitea... bezalako gaiak gelan lantzea. Patioko arauak eta ondorioak zehaztuta izatea eta guztiok hauen berri izatea. Irakasle guztiok berdin jokatzeko. 	
	<ul style="list-style-type: none"> Material desberdina eskaini zaie patio orduetan. 6.mailako ikasleak patio orduan materialaren arduradun izan dira, kutzak atera, sartu eta kontrol orrian eraman dute erregistroa. 	<ul style="list-style-type: none"> Materiala ez da beti ondo zaindu. Materiala ez da beti egoki erabili. 6.mailako ikasleak batzuetan berandu jaitsi dira edota ahaztu egin zaie. LHko ikasleek ilara luzeak egin behar izan dituzte materiala 	<ul style="list-style-type: none"> Gauzen balioa eta hauek ondo zaintzearen eta erabiltzearen garrantziaz geletan hausnartzea. Patioko arauak eta ondorioak zehaztuta izatea eta guztiok hauen berri izatea. Tokatzen zaien egun horretan, pare bat minutu lehenago jaitea. Egiten diren 6.mailako ikasleen patioa txandak taula, LHko geletan eta irakasle gelan eskuragarri eta ikusgai izatea. 	

	<ul style="list-style-type: none"> • 6.mailako ikasleek gainontzeko LHko ikasleei patioaren antolamendu berria azaldu die. 	<p>hartzerakoan eta patioko denbora zati bat itxoiten galdu dute.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasle batzuk materiala ez dute bueltatu. • 6.mailako ikasle batzuek materiala “erreserbatzen” zieten ikasle batzuei gainontzekoiei hori erabiltzeko aukera kenduz. • Arazo handiak egon ziren azalpenak ematerako orduan. 	<ul style="list-style-type: none"> • Patioan, alde bakoitzeko dauden bi arduradunek, karroan dagoen materialaren banaketa bien artean egitea. • Kontrol orriaren erabilera egokia egitea. • 6.mailako arduradunei, patio ondorengo lehenengo 5 minutuak eskaintzea, galdutako materialaren arduradunengana joan ahal izateko. • Kurtso hasieratik funtzionamendua adostu eta maila guztietan ondo azaldu (batez ere ordezkariari). <p>Antolamenduaren azalpena geletako karpeta urdinean sartzea.</p>
	<ul style="list-style-type: none"> • Azaroaren 25ean, Emakumearen kontrako indarkeriaren aurkako egunean, hausnarketa lana egin da eskola mailan. • Gabonetan, jostailuen gaia jorratu da hezkidetza ikuspegitik. 	<ul style="list-style-type: none"> • Aste gutxitan gauza asko pilatu zaizkigu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Emakume eta neska zientzialariaren eguna, zientzia astearekin batera lantzea.

<ul style="list-style-type: none"> • Otsailaren 11a, emakume eta neska zientzialarien eguna, landu da. • Martxoaren 8a, Emakumearen nazioarteko eguna, ospatu eta landu da eskola mailan. • Martxoaren 8an, HHn SUPERMORE neska superheroia aurkeztu da. • HHn, ikasleentzat egokiak izan diren ekintzetan parte hartu dute eta haien ezaugarrietara moldatu dituzte ekintza ezberdinak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Denbora falta gai hauek behar bezala jorratzeko. • HHn egun berezi hauen antolamenduaren berri bapatean jaso dute. • Hezkidetza, puntualki egun berezi hauetan bakarrik lantzeko arriskua dago. • Emakumearen nazioarteko egunerako antolatuta zeuden ekintza batzuk (dantza adibidez) bertan behera geratu ziren. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasturte hasieran, egun seinalatuen egutegi orekatu bat zehaztea. • HHko irakasle bat gutxienez Bizikidetza Batzordean egotea. • Hezkidetza, zeharka egunerokotasunean eta naturaltasunez lantzea. • Ikasturte hasieran, hezkidetza zeharka, egunerokotasunean eta naturaltasunez nola landu hausnartu eta programazioetan txertatzea. • SUPERMORE neska superheroia ikastetxeko egituraketan mantentzea eta pisu gehiago ematea.
--	---	--

	<ul style="list-style-type: none"> • Hilabetean behin, LHko gela bakoitzeko arduradunekin, zuzendaritza taldeko kide bat eta hezkidetzako koordinatzailea elkartu dira, ikastetxeko egoera eta arazoak hezkidetzara eraman dira, ikastetxeko egoera eta arazoak hezkidetzara eraman dira. 	<ul style="list-style-type: none"> • Zaila izan da, arduradunek geletara ekarri dituzten gaiak sortutako eztabaida eta hausnarketei behar adina denbora eskaintzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Denbora gehiago izatea tutoretzako gaiak jorratzeko. • Hilabetean behin, gela bakoitzeko arduradunen bilerak egiten jarraitzea. 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Baratza izango den eremua egokitu du Guraso Elkartek. • Baratza abiarazteko eta antolatzeke talde lana sortu da eta astean behin elkartu da. • Abetxuko Urarte Udal Baratzeetan mahai-laborantza ikastaroa jaso da eta bertan jasotako mahai-laborantzak Haur Hezkuntzara eraman dira. • Hezkidetzara eta Elkarbizitza mintegitik formakuntza jaso da. • Liburutegian hezkidetzara eraman dira ikuspegia bermatzen duten liburu berriak txertatu dira. 	<ul style="list-style-type: none"> • • • Geletan daukagun materialaren azterketa 	<ul style="list-style-type: none"> • Naturarekin kontaktua bermatzen duten jarduerak gehiago gure programazioetan txertatzea. • HHn mahai-laborantzak zientzia tailer modura erabiltzea. • Formakuntza jasotzen jarraitzea. • HHko eta LHko liburutegietako eskaintza hezkidetzara eraman dira ikuspegitik aztertu eta osatzen jarraitzea. 	

		<p>hezkidetza ikuspegi batetik egiteko denbora falta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Ikasturte hasieran, esku artean daukagun geletako materialaren azterketa hezkidetza ikuspegi batetik egitea.
<ul style="list-style-type: none"> Behatokiko bilera egin da (guraso, ikasle eta LH zein HHko irakasleekin). Guraso Elkarteko Berdintasun Batzordea eta Patioko Batzordearekin elkarlana egon da. Eskola-komunitatea gonbidatua izan da hainbat ekitaldi eta auzolanetan parte hartzera. Ikastetxea Udaletxeko Hezkidetza arduradunarekin elkartu da diagnostikoa eta beharren berri emateko. 	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> Guraso Elkarteko batzordeekin lankidetzan jarraitzea gure jolastokia eraldatzeko eta hezkidetza bermatzen duten jarduerak antolatzeko. Ikastetxeak Udaletxeko Hezkidetza arduradunarekin kontaktuan eta elkarlanean jarraitzea. 	
<ul style="list-style-type: none"> • Bat taldea sortu da (bullingen aurkako taldea), aholkulariek, proiektuaren koordinatzaileak eta zuzendaritzak osatua... 	<ul style="list-style-type: none"> • Eskola-jazarpenerako balizko kasuen jarraipen estua egin da 	<ul style="list-style-type: none"> • Zaila egin zaigu taldeko kideen ordutegi guztiak bat etortzea 	<ul style="list-style-type: none"> Ikasturte hasieratik bileren eguna eta ordua finkatzea.

Helburua

2019-20 ikasturtean hainbat lan burutu behar dira proiektua martxan jartzeko, hala nola:

- LANKIDE -ERAKUNDEA (Aliantza, Parner-a) zehaztea
- Lankide-erakundea eta gure ikastetxearen arteko elkar-ezagutza
- Lankidetza akordioaren sinadura
- Lankidetza-Ekintzak zehaztu eta burutzea
- Komunikazio plana egitea eta indarrean jartzea
- Gurasoak, auzoa, ikastetxeko ekintzen parte sentitzeko ekintzak burutzea.

TALDEAK	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila.	Zailtasunak eta zergatiak	Hobekuntzarako proposamenak	Hobekuntza proposamenak kontuan hartuz, lehentasunak.
	Eskolaren ildo nagusia zehaztu da	Irakaslearekin biltzeko hitzorduak zehazteko orduan geneukan denbora laburrak baldintzatu zuen taldekatzea eta elakrrekin hausnartzeko aukera. Beharbada ekarpenak aberatsagoak izan zitezkeen denbora gehiagorekin Dena dela ikuspegi konpletoa eskaini zuen prozedurak.	-Landu nahi den gaia baldintzatzten duten “aurretiko egoerak” identifikatu eta aparte lantzea. -Magnet Batzordearen bidez etengabe ekarpenak egiteko aukera ezartzea	“Eskolaren Bisioa eta Misioari” buruzko hausnarketa egin eta adostasuna lortzea.

	Ildo nagusia erabakitzea Klaustroa.	Irakasleagoan zeuden Magneti buruzko ikuspegi kontraerriak: Eskolaren BISIO partekatu falta.	Eskolaren unean-uneko egoera sozio-kulturalaren hausnarketa eta adostasun partekatuaren beharra	
	Zientzia Astea eta Ikastetxearen irudia lantzeko lankidetzaren aurkitzea.	Alabeharrez, Udalaren diru-laguntzari esker, Kulturbide kontatatu genuen Astearen antolakuntzarako Irudiari dagokionez Labox empresa kontratatu zen.	-Berriz Zientzia Astea antolatzen badugu ikasitakoa aplikatu dezakegu. Kosteak oso altuak izan dira gestioari dagokionez. -Irudia zehazteko prozedurak ikasi ditugu	
	Zientzia Asterako (Eskolan egitekoa eta BIBATeneko standaren disesinua) Ideia posibleen zerrenda egitea eta enpresei jakinaraztea.	Zerrendako ideiak mugatzea izan zen zailtasun bakarra. Egingarriak zirenak baino ideia gehiago geneuzkan.	-Unibertsitatekoekin egindako bileretatik imajina eta antolaketari buruz ikasi duguna: Hirrengo halako erakusketarik egitekotan nola hobetu erakusgarri daukaguna.	
	Lankidea (Partner-a. Aliantza) izango duguna zehaztea eta hitzordua jartzea.		Emakumearen ikusgarritasunean lanean jarraitzea. Mutil eta gizon eredu berrien ikusgarritasuna gehiago sustatzea.	
	MAGNET-ERAKARRI Batzordea eratzea Ikastetxean.	-Irakasleen Magnet Batzordea eratu zen. -Gurasoen Magnet Batzordea eratu zen. Ezin izan diogu iraunkortasunik eman batzordeei, alde batetik Lankide-Erakundea ez dugulako aurkitu eta, bestetik, izurriteak eskolako jardura normala eten duelako.	Bileren maiztasuna bermatu. Irakasleen eta gurasoen partehartehartzea bermatu.	Ikastetxeko Magnet batzordeak eta Zuzendaritzak iniziatiba hartzea.

Lankide-Erakundea eta Angel Ganivet-Santa Luzia ikastetxearen arteko elkar-ezagutzarako bisitak egitea.	Ezin izna dira egin Lankide-Erakunderik ezin izan dugulako adostu.	Ikastetxearen aldetik proaktiboak izatea Lankide-Erakundea aurkitzerakoan, goragoko erakundeek arazoak konpontzeko itxaroten egon beharrean.
Lankide-Erakundea eta Angel Ganivet-Santa Luzia ikastetxearen arteko lankidetzaz zehaztea.	Bi saiakera egin dira: EHU et EUSKALMET Ezin izan dira gauzatu, batez ere lankidetzaz honetarako pertsonalik ezin zutelako jarri.	Eskolarik bertatik inizatiba hartu: Guretzat egokiak liratekeen zerrenda egin.
Lankide-Erakundea eta Angel Ganivet-Santa Luzia ikastetxearen arteko ELKAR-LANERAKO AKORDIOA SINATZEA.	Aurreko arrazoiengatik ezin izan da burutu.	Nahiz eta ezin nizan dugun gauzatu akordiorik ikastetxeak Magnet Batzordean ondo zehaztu beharko luke zer espero duen halako lankidetzaz batetik. Orain ez dago batere argi.
Irakaslegoarentzat gutxienez formazio saio bat antolatzea.	Martxoa-apirilerako zehaztuta geneukan "Zientziaren hezkuntza"-ren inguruan egiteko ikastaroa: COVID-19 izarrieteak bertan behera utzi du.	
Gurasoekin zientziarekin lotutako hiru ekintza antolatzea.	Baratza eta Astornomiaren inguruan aurrikusten genuen azken lauhilabetekoian egitea: COVID-19 izarrieteak bertan behera utzi du.	
Ikasleekin gutxienez zientzia-proiektu bat garatzea	Lankide_erakunderik ez dugunez izan ezin izan da burutu.	

	LANKIDE-ERAKUNDEAREKIN lankidetzan.			
	Proiektuekin lortutako emaitzen dibulgazioa egitea. Ikas-komunitatean, prentsan, auzoan	Zientzia Asteekin lotuta egin zen: Zenbait komunikabideetan ez dugu izan nahi adinako entzutea	Delegaritzako komunikazio-arloaren bidez bideratzea kanporako, prentsarako dibulgazioa.	
	LANKIDE-ERAKUNDEAREKIN batera ikasturteko ebaluazioa egin eta 2020-21 ikasturterako lankidetzaz zehaztea.	Ezinezkoa izan da ERAKUNDE EZAGATIK.		
	KOMUNIKAZIO PLANA zehaztea: 1.WEB orria 2.Triptikoak, eskuorriak 3.Magnet-eskolari buruzko bideoa 4.Ikasleen proiektuen bideoak 5.Sare sozialak 6.Ate irekiak 7.Eremu publikoetan (kongresu eta erakusketetan) aurkezpenak	1.WEB orria: Martxan dago Elikatu beharra dago 2.Triptikoak, eskuorriak: Diseinatuta daude 3.Magnet-eskolari buruzko bideoa: Erdibiudean geratu da. Lehen hiruhileko materiala daukagu, baina kurtso bukaeran egin beharrekoak faltzaizan zaizligu 4.Ikasleen proiektuen bideoak: Etenak ez du bideragarri egin. Lehen hiruhilekoak ditugu soilik. 5.Sare sozialak: Aniatu gara 6.Ate irekiak: Aurtengo saiakera poositiboa izan da.	1.WEB orria: Arduradun zehatza izendatzea 2.Triptikoak, eskuorriak: Zabalkundea zehaztu behar da. 3.Magnet-eskolari buruzko bideoa: Nola osatu zehaztu behar da. 4.Ikasleen proiektuen bideoak: Etenak ez du bideragarri egin. Lehen hiruhilekoak ditugu soilik. 5.Sare sozialak: Gaie eta eduki zerrenda egin. Astero zerbait argitarazteko. 6.Ate irekiak: Zer erakutzi nahi den zehaztu eta azpimarratu. 7.Eremu publikoetan (kongresu eta erakusketetan) aurkezpenak: Artikuluak idatzita izan egokitu ahal izateko aukera daukagunerako	Kasu praktikoei buruzko artikuluak prestatu

		<p>7.Eremu publikoetan (kongresu eta erakusketetan) aurkezpenak: Proiektu praktiko bati buruz egitea nahi genuen. Ezin izna da burutu.</p> <p>Aldizkari baten artikulua bat argitaratzeko aukera izan dugu, baina aurtengo (Magnet garaiko) esperientzia falta izan zaigu</p>		
--	--	---	--	--


2.2. Ikaskuntza-prozesuen ebaluazioa

ESKOLA ENAITZAK - LH1 MAILAKO TALDE-KONPARAKETA
 RESULTADOS ESCOLARES - COMPARACION DE GRUPOS de 2º PRIM

Kodea / Código: 010342
 Ikastetxe / Centro: CBP Ángel Ganivet-Santa Lucía LH1
 Ikasturte / Curso: 2019-2020


1.- Mielaz igerotzen duen ikaslegoaren ehunekok / Porcentaje de alumnado promocionado

	0	1	2	>2	3
EAE/CAPV	00%	0%	2%	4%	3%
ARA_PUB	00%	7%	4%	5%	5%
Ikastetxea	0%	8%	3%	7%	0%
LH 2D3	0%	8%	3%	9%	4%
LH 2D1	7%	0%	3%	4%	10%
LH 2D2	10%	10%	12%	0%	4%




2.- Gela gainditu duen ikaslegoaren ehunekok / Porcentaje de alumnado superado por materia

	GE	GE	EL	EL	MAT	AH	AH	GH	BE	BE
	GE	GE	LVL	LCL	MAT	LE	EA	EP	BE	VEG
EAE/CAPV	97%	97%	88%	87%	83%	90%	100%	100%	100%	100%
ARA_PUB	88%	84%	84%	97%	89%	90%	100%	100%	100%	100%
Ikastetxea	88%	92%	73%	88%	80%	77%	99%	99%	100%	100%
LH 2D3	80%	100%	88%	87%	82%	72%	100%	100%	100%	100%
LH 2D1	80%	89%	72%	70%	80%	84%	99%	99%	99%	99%
LH 2D2	90%	100%	87%	94%	82%	70%	100%	100%	100%	100%




3.- Bataz bestekoak gaita / Notas medias por materia

	GE	GE	EL	EL	MAT	AH	AH	GH	BE	BE
	GE	GE	LVL	LCL	MAT	LE	EA	EP	BE	VEG
EAE/CAPV	7,1	7,1	6,3	6,0	6,9	7,0	7,5	7,8	7,8	7,8
ARA_PUB	6,7	6,7	6,0	6,8	6,7	6,8	7,2	7,2	7,5	7,1
Ikastetxea	6,8	6,7	6,0	6,5	6,0	6,5	7,1	6,9	7,1	6,1
LH 2D3	6,8	7,2	6,2	6,0	6,0	6,4	7,2	6,7	6,7	6,3
LH 2D1	6,3	6,4	5,0	5,1	6,0	6,0	7,0	6,7	6,7	6,5
LH 2D2	6,8	6,8	6,1	6,7	6,0	6,4	6,4	6,4	6,4	7,0




4.- Ikastetzeko ikasleen mailak / Niveles del alumnado del centro

	GE	GE	EL	EL	MAT	AH	AH	GH	BE	BE
	GE	GE	LVL	LCL	MAT	LE	EA	EP	BE	VEG
Azkeneko	15%	13%	4%	12%	10%	20%	15%	1%	100%	7%
Ertaina	7%	33%	63%	76%	60%	57%	84%	97%	100%	62%
Hobena	10%	1%	27%	12%	12%	23%	1%	1%	100%	1%



2019/2020
4. Ebaluaketa



Taula hauetan ikusten dira ikasleek izandako emaitzak. Euskara arloan oso emaitza baxuak izan dituzte batez ere 2., 4. eta 5. mailan. Matematiketan 6.mailakoak izan dira emaitza eskasak lortu dituztenak. Atzerriko hezkuntzan 2. eta 5. Mailakoek izan dituzte emaitza baxuenak.

Errepikapenei dagokionez, 2. eta 3. Mailak izan dira errepikatzaile gehien izan dituztenak (%8 eta % 9)

Gainditu gabeko ikasle gehien izan dituzten gelak 2D1, 3D2 eta 6D2 dira.

Aurten ateratako emaitzak bat datoz Diagnostikoaren frogan atra zirenekin. Hobtu behar ditugun arloak hauexek dira: euskara hizkuntza, matematika eta ingelesa hizkuntza.

3. Irakaskuntza-jardueren programaren ebaluazioa

3.1. Ohiko irakaskuntza-jardueren programaren ebaluazioa

3.1.1. Ikastetxearen funtzionamendu atalak

↓ IUPean planifikatutakoa kontuan hartutik funtzionamendurako alderdi orokorren balorazioaren laburpena eta ondorioak

	Alderdi positiboak	Zailtasunak	Zergatiak	Hobekuntza proposamenak
Tutoretza Plana	<ul style="list-style-type: none"> • Materiala sailkatuta dago gaika eta dinamika desberdinak erabili ditugu tutoretza saioetan. • Kurtso hasieran egindako dinamika proposamenak egokiak izan dira. • Beharraren arabera, kurtsoan zehar dinamika desberdinak aurrera eraman dira. • Bizikasi ekimenerako web orrialde bat dago aztertzeke. Gainera, gure lankide batek irakasle berriei azaldu die. • Ordezkarien lana oso positiboa izan da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Batzuetan zaila da alde aurretik programatutako tutoretza plana aurrera eramatea, zeren eta egoera desberdinak sortzen zaizkigu geletan eta berehalako erantzuna eman behar zaie. • Hala ere, tutoretza plana, gela bakoitzari eta sortu diren arazo bakoitzei egokitzen saiatu gara. • Denbora falta, gauza asko pilatzen dira eta ez dago denborarik tutoretza plana behar bezala aurrera eramateko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Bizikidetzaren arazok berehalako erantzuna eskatzen dute. 	<ul style="list-style-type: none"> • Zeharkako kompetentziak ikasgai guztietan landu behar dira. • Gatazken aurrean irakasle guztiek berdin jokatzeko. • Denbora izatea tutoretza plana aztertzeke eta eguneratzeko. • Dinamika inportanteak kurtso hasieran proposatzea. • Tutoretza-plana lehenestea, garrantzitsua baita arlo guztietan ondo egoteko.

	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasketa Buruak geletako ordezkarietara landu dituzte eta ikasle horiek beraien ikaskideei transmititu die. • Gelako postontziaren erabilera positiboa izan da. • Emozio-txokoa erabili dugu. • Aldian aldiko zeharkako gaiak landu dira (emakume zientzilaria eguna, emakumeen eguna...) eta IGE-ko partaideak lagundu dituzte. • Hainbat geletan soziograma egin da gelako egoera aztertzeko eta esku-hartzea egiteko 	<ul style="list-style-type: none"> • Ordezkarien lana oso positiboa izan arren, bigarren mailako ikasleek laguntza behar dute bileran esandakoa azaltzeko. • Ordezkarien azalpenetarako eta ondorengo eztabaidarako denbora asko behar da. 		<ul style="list-style-type: none"> • 3.zikloan autonomoagoak izanda, bere momentuan konpontzen ikasi behar dute ulertaraztea. • Zeharkako konpetentziak ikasgai guztietan landu behar dira. • Gatazken aurrean irakasle guztiek berdin jokatzeko. • Denbora izatea tutoretza plana aztertzeko eta eguneratzeko. • Dinamika inportanteak kurtso hasieran proposatzea. • Lehentasunak argi ondo izan behar ditugu. • 3.zikloan autonomoagoak izanda, bere momentuan konpontzen ikasi behar dute.
--	---	--	--	---

		<ul style="list-style-type: none"> • Askotan jantokian gertatzen diren gatazkak klasean konpondu behar ditugu eguerdian guztiz ez direlako konpondu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Jantoki orduan ez dira guztiz konpontzen. • Monitore gutxi daude. • Eguerdiko denbora oso luzea delako 	<ul style="list-style-type: none"> • Jantokiko arazoak jantoki orduan konpondu behar dira. Beraiekin koordinazioa hobetu behar da.
--	--	---	--	---

<p>Tutoretza Plana</p>				<ul style="list-style-type: none"> • Jantokiko arazoak gelara iristen direnengan guk geuk moztea. • Jantokian geratzen diren horiekin, etengabe arazoak badituzte, hasieratik moztea. • Zorroztasun gehiago egotea jantokian etxera bidaltzerako orduan. • Begiraleak jantoki orduko azken momentu arte ikasleekin egotea.
<p>Tutoretza Plana</p>		<ul style="list-style-type: none"> • Futbolaren gaiak arazo asko ekartzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lehia handia dago haien artean, eta ez dituzte kirol honekin sortzen diren arazoak kudeatzen. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleak arbitro moduan jartzea, irakaslea bertan begiratzen egonda. • Begiraleak jantoki orduko azken momenturarte ikasleekin egotea. • Ikasleak arbitro moduan jartzea, irakaslea bertan begiratzen egonda. • Zikloetan futbol kirolaren inguruko hausnarketa egin behar dugu.

	Alderdi positiboak	Zailtasunak	Zergatiak	Hobekuntza proposamenak
